ZABALTZEN DOKUMENTAZIO ZENTROA
TXT 20090

# EGOERA INDUSTRIALARI BURUZKO EBAZPENA

Hego Euskal Herriko egoera ekonomikoa egoera larri bat jasaten ari da eta etorkizuna ere ez dirudi askoz hobea izango denik; ezin dugu ahaztu aurreko hamarkadan izandako lehenengo birmoldaketa industrialaren ondoriotatik abiatzen garela eta hark lanpostuen desagerketa masiboa eta sare industrialeko lantegi garrantzitsuen ixtea suposatu zuela.

Aipatutako birmoldaketak euskal industriak zituen arazo bat ere ez zuela konpondu froga dezakegu gaur egun. Euskal Herria gainbehera doan zonaldea da eta bertako produkzio alor guztiak krisiak jota aurkitzen dira. Nekazaritza eta abeltzantza EEE-ak ipinitako baldintzengatik eta euskal intstituzioen inhibizioaren ondorioz oso egoera larrian aurkitzen dira. Arrantzan, berriz, harrapaketak gutxitzeko neurriengatik, kaladero faltagatik, baimenen banaketagatik eta arrantza politika ezaren ondorioz flotaren izatea bera ere zalantzan jartzen da. Industria-arloan, siderurgia integrala, altzairu bereziak, papera eta abarren egoerak eta beste ehundaka enpresen krisiak gure herria basamortu industrial bihur dezakete.

Etorkizunari begira, alde batetik, pobretze eta marginatze prozesu bat datorkigu eta bestetik Hego Euskal Herriaren eraikuntzarako beharrezko ditugun zutabe eta baliabide ekonomikoak desagertzen dira. Eraikuntza-proiektu honek bidegarritasuna izan dezan, Gernikako Estatutoak eta Foru Amejoramenduak ematen ez duten subiranotasun maila behar da. Gure baliabideak erabiltzeko ahalmenak emango dizkigun autogobernua beharrezkoa da. Horrela ez bada gizarte kapitalista garatu baten bihotzean kokatzen den lurralde erabat pobretua bihur gaitezke.

Egoera honen aurrean LAB-en III Biltzarreak, multinazionalek eta europar kapital monopolistak diseinatu duten eta estatu espainoleko PSOEren gobernuak, PNV eta UPN-ren laguntzaz Baskongadetako eta Nafarroako gobernuetan, aplikatu nahi duen politika industrialari ezezko borobila eman nahi dio. Herri libre eta subirano izateko garatu behar den politika industrialaren aldeko borroka bultzatzeko konpromezua baieztatu nahi dugu langile eta euskal gizarte osoaren aurrean.

Lan honek gaur egungo marko juridiko gainditzea eskatzen du. Orain daukagunak, gure industriari buruz gobernu espainiarrak hartutako erabakiak aldatzeko aukerarik ez du ematen.

Eskatzen dugun marko berri honek, gure garapenerakonaturarekin harreman orekatuak dituen industria sarea jasotzeko tresna politiko, material eta ekonomikoak izan behar ditu. Euskal instituzioek horretarako behar diren erakundeez eta finantziabidez hornitzen direnean bakarrik gertatuko da hori.

Helburu hauek lortzeko bidean LAB-ek premiazko dei bat egiten die giza agente guztiei, batasun zabal baten inguruan borroka kontsekuentearen bidez erantzuna eman dezagun. Horretarako, gure Erakundea eta militante guztiak, ditugun indar guztiekin estrategia horretan lan egitera konprometatzen gara.

# RESOLUCION SOBRE LA SITUACION INDUSTRIAL

La situación económica de Hego Euskal Herria está atravesando una fase crítica, con unas expectativas poco halagüeñas. No debemos olvidar que partimos con los efectos de la primera reconversión, con un proceso de ajuste duro, que ha supuesto en la pasada década una destrucción masiva de puestos de trabajo y el cierre de importantes empresas del tejido industrial.

Hoy comprobamos que dicho proceso de reconversión no ha resuelto ninguno de los problemas que presentaba la industria vasca. Euskal Herria es una zona industrial en declive con una economía afectada en todos los sectores productivos.

El sector primario, la agricultura y la ganadería se encuentran gravemente tocadas como consecuencia de las condiciones pactadas con la CEE y la inhibición de las instituciones vascas. En el sector pesquero las medidas de reducción de capturas, la falta de caladeros, la adjudicación de licencias, unido a la ausencia de una política pesquera, está poniendo en cuestión la existencia de las flotas. En el sector industrial, la situación de la siderurgia integral, aceros especiales, papel, etc., unido a los cientos de empresas en crisis, amenaza con convertir a nuestro pueblo en un desierto industrial.

El futuro que nos aguarda, además de provocar un proceso de empobrecimiento y marginación generalizado nos coloca en una situación de carencia de pilares y recursos económicos fundamentales para llevar adelante el proceso de construcción nacional, en el que está empeñado este sindicato y que necesita Hego Euskal Herria. Para que este proyecto sea viable es imprescindible unos niveles de soberanía que tanto el estatuto de Gernika como el amejoramiento foral no alcanza. Son precisos unos niveles de autogobierno que nos permitan abordar el futuro con capacidad de disponer de nuestros propios recursos, de lo contrario corremos el riesgo de convertirnos en una sociedad depauperada en el corazón del capitalismo desarrollado.

Ante esta situación, el III Congreso de LAB manifiesta su rechazo absoluto a la política industrial que, diseñada desde las multinacionales y el capital monopolista europeo, se pretende aplicar a Euskal Herria por el gobierno del PSOE en el estado español, con la complicidad o pasividad del PNV en el gobierno vascongado y de UPN en Nafarroa. Queremos afirmar nuestro compomiso organizativo ante las trabajadoras y trabajadores y ante toda la sociedad vasca en la lucha por una política industrial que permita a nuestra nación el desarrollo efectivo como pueblo libre y soberano.

Comprometernos en esta tarea nos lleva a la consideración de la necesidad de superar el marco jurídico político actual, marco que impide hoy, efectivamente, que cualquier toma de decisiones acerca de nuestra industria, que pretenda modificar las acordadas desde el gobierno español, pueda ser llevada a cabo.

Desde este nuevo marco que necesitamos, es indispensable la potenciación en el terreno económico de los instrumentos para mantener y poner en pie nuestro tejido industrial en armonía con el entorno natural y elevar las condiciones materiales de nuestro desarrollo, lo que pasa, en definitiva, por disponer de unas instituciones vascas con los medios de financiación y de los organismos precisos para tal fin.

En orden a conseguir estos objetivos, LAB hace un urgente llamamiento a la más amplia unidad de acción de todos los agentes sociales para impulsar activamente la organización de una respuesta de lucha consecuente. A tal fin, nuestra Organización y toda su militancia nos comprometemos con todos nuestros esfuerzos en esta estrategia.